

# BERTSO ZAHARRAK LEZOKO NESKATXEI JARRIAK

Historia atalean P. Urkizuk aipatu bertso bildumetarik zenbait aukeratu ditugu eta orri hauetara lekualdatu. Lehenbizi Xenpelar eta honen osaba Ardotxen arteko bertso dema dakargu.

L. Jauregi "Jautarkol"ek zerau dio: "Lezoko jaiak Gurutze Santu egunez izan oi dira. Antxe ziran, beste urteetan bezela, gure Xenpelar ta Ardotx bertsolari ospetsua, illoba ta osaba, erriko pestetarako alkate jaunak deituak. Beren bertso-saioa erri-etxeko balkoitik egin bear zuten, oi dan bezela. Bañan asteko ordua baño len, enparantza osoa jendez josia zegon, eta erriko gizon edo kontzejalak larri zebiltzan jende tartean bertsolariak zeuden tokiraño ezin iri-txirik. Ori zala-ta, alkateak esan zion Xenpelarri neskaten aurka edo kontra as teko bertsotan. Xenpelarrek, zarragoari ta osabari zor zion itzalagatik, Ardotxi eskeñi zion asiera. Onek erantzun zion, alkateak berari esan ziola bai, ta aste-ko bera, agindua beteaz". Hona hemen hasierako lehenengo hiru bertsoak:

1º Xenpelar: Orain asi biagu  
asunto berriyan,  
zer gertatutzen zaigun  
Lezoko erriyan;  
neska gaztiak daude  
emen alegriyan  
kantaren aitzakiyan  
mutillen erdiyan.

2º Ardotx: Emakume kontuan  
al zerade asi?  
gerenez konsidera  
dezagun lenbizi;  
jendiari nai diot  
emen adirazi,  
ia zein joaten dan  
neskatxen igesi.

3º Xenpelar: Ia, dama gaztiak,  
ondo entzun, arren:  
ez utzi sartutzen  
nai dan bezin barren;  
asiko lirakenak  
Xenpelar baño len  
bizar aundi batzuek  
badirade emen.

Ondoren, Juan Jose Sarasola Azkue "Lexo"k (1.897-1.952) gazte denboran eginiko bertsoak dakartzagu Antonio Zabala bertso-biltzailearen eskutik, bere komentario eta guzti:

"Garai artan oitura zan bezela, Lexo ta bere lagunak neskaxetara joan ziran, jai-arratsalde batez, baserri batera. Aitak, ordea, atalaiarekin bialdu zituán. Ta Lexok bertso au bota zuan orduan:

Danak izaten degu  
dibertitu naia,  
gaztiak ibiltzeko  
egiña da jaia;  
etorri balitzaio  
gustoko galaia,  
etzuen dantzatuko  
aitak atalaia.

Beste bi bertso auek, berriz, neskaxa bat eta Lexok alkarri botiak dira. Neskaxa tabernari baten alaba zan. Biak alkarrekin pixka bat tratatzen asiak zirala ematen du. Dana dala, arratsalde batez Lexo neskaxa orrengana joan zan, bañan arek bertso onekin despatxatu zuan:

Aizu, Juan Joxe, pixka batian  
atzian egon zaitia,  
oraindik ez da libertaderik,  
itxia dago atia;  
nik izanâtik zureganako  
gutzizko borondatia,  
aitak eta amak ez baidute nai  
gu biyok esposatzia.

Ta Lexok onela erantzun zion:

Disimuluan utzitzen nazu  
gurasoen aitzekiyan,  
zu neretzako etziñadela  
lenago're banekiyan;  
beste norbaitek faltako balu

ni nitzan aren tokiyan,  
ez dezula nai esan zaidazu,  
zertan zabilta tranpiyan?

Ikus: Jauregitar Luis: "Xenpelar bertsolaria"


Itxaropena, Zarautz, 1.958

Antonio Zavala, S.I.: "Xenpelar bertsolaria"


Auspoa liburutegia, Donostia, 1.969

Antonio Zavala, S.I.: "Lexo bertsolaria"

Auspoa liburutegia, Donostia, 1.968



**LEXO BERTSOLARIA**



**XENPELAR**